

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN  
TOKI ADMINISTRAZIOAADMINISTRACIÓN LOCAL DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

## Udalak

## DULANTZI

5605

**Hutsa zuzentzea 2013ko urriaren 21eko ALHAOn (121 zk.) argitaratutako iragarkian, "Dulantziko hiri antolamendurako plan orokorra eta ingurumen ebaluazio estrategikoa idazteko" zerbitzuen kontratuaren lizitazioari buruzkoan.**

Kontraesana antzeman denez 2013ko urriaren 21eko ALHAOn (121 zk.) argitaratutako iragarkiaren, "Dulantziko hiri antolamendurako plan orokorra (HAPO) eta ingurumen ebaluazio estrategikoa (espedientearen karátula) idazteko" zerbitzuen kontratuaren lizitazioari buruzkoaren, eta baldintza teknikoaren agiriaren artean, iragarkiaren eta karátularen 4. puntua aldatzen da, bigarren paagrafoa kenduta. Honela idatzita geratzen da:

## 4. GUTXIENKO KAUDIMEN BALDINTZAK

Erakunde lizitaztaileak egiaztatu beharko du idazketa taldean pertsona bat duela bi hiri antolamendurako plan orokor edo udal planeamenduko arau subsidiarioen bi agiri egitean edo berrikustean parte hartu duena eta HAPO edo AS behin betiko onartuta daudela.

Luzatu egingo da eskaintzak aurkezteko epea, izan ere, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen 20 egunak.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Dulantzi, 2013ko azaroaren 6a.– Alkatea, JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA.

## ARRATZUA-UBARRUNDIA

5436

**Behin betiko onartzea txakurrak babestea eta edukitzea arautzen duen ordenantza.**

Espedientea jendaurrean egon den bitartean ez denez alegaziorik aurkeztu haren aurka, argitaratu egiten da, indarrean sar dadin.

TXAKURRAK BABESTEA ETA  
EDUKITZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Arratzua-Ubarrundiako Udalak jakin badaki pertsonen eta txakurren arteko harremanak hobetu behar direla, batetik, gero eta jende gehiagok dauzkalako txakurrak eta haientzat balio handia dutelako eta, bestetik, txakurrekin dugun bizikidetzak estuak higiene, osasun, ingurumen eta segurtasun arazoak ekar diezazkiokeelako erkidegoari. Bada, arrisku horiek ekidin behar direnez, udalak erabaki du txakurren babesa eta edukitzea arautzea ordenantza honen bidez.

Txakurren jabeek gogoan izan behar dute animaliak beraien mende daudela erabat, bai eta haien zaintzeaz arduratu behar dutela ere. Horrez gain, bermatu behar dute txakurrek edo haien ohiturek ez dietela eragozpenik sortzen gainerako herritarrei, batez ere, higiene-arekin eta segurtasunarekin zerikusia duen guztian. Gainera, kontuan izan behar dituzte txakur zaleak ez diren pertsonen eskubideak.

## LEHENENGO TITULUA

## Xedapen orokorrak eta definizioak

## 1. artikulua.

Ordenantzaren xedea da Arratzua-Ubarrundiako udalerrian txakurrak babesteko eta edukitzeko arauak ezartzea, osasun publi-

## Municipios

## ALEGRÍA-DULANTZI

5605

**Corrección de errores del anuncio publicado en el BOTHA nº 121, de fecha 21 de octubre de 2013, de licitación del contrato de servicios "redacción del plan general de ordenación urbana y de la evaluación ambiental estratégica del municipio de Alegría-Dulantzi".**

Habiéndose observado una contradicción entre el Anuncio publicado en el BOTHA nº 121, de fecha 21 de octubre de 2013, relativa a la licitación del contrato de servicios "redacción del plan general de ordenación urbana (PGOU) y de la evaluación ambiental estratégica (EAE) del municipio de Alegría-Dulantzi" (carátula del expediente) y el pliego de condiciones técnicas, se modifica el punto 4. del anuncio y de la carátula, anulando el segundo párrafo, quedando redactado de la siguiente forma:

## 4. REQUISITOS MÍNIMOS DE SOLVENCIA

La entidad licitadora deberá acreditar que dispone en el equipo redactor de una persona que haya participado en la elaboración o revisión de dos Planes Generales de Ordenación Urbana o de dos documentos de Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal, y que el PGOU o las NNSS estén aprobadas definitivamente.

El plazo de presentación de ofertas se amplía, comenzando a contarse los 20 días a partir del siguiente a aquel en que sea publicado este anuncio en el BOTHA.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Alegría-Dulantzi, a 6 de noviembre de 2013.– El alcalde, JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA.

## ARRATZUA-UBARRUNDIA

5436

**Aprobación definitiva de la ordenanza reguladora de la protección y tenencia de animales de la especie canina.**

No habiéndose producido alegaciones al expediente de referencia en su periodo de exposición pública, se lleva a cabo su publicación para su entrada en vigor.

ORDENANZA REGULADORA DE LA PROTECCIÓN  
Y TENENCIA DE ANIMALES DE LA ESPECIE CANINA

El Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia consciente de la necesidad de mejorar las relaciones entre las personas y los animales de la especie canina pues por un lado su tenencia tiene un enorme valor para un número cada vez más elevado de ciudadanos y por otro, la estrecha convivencia con los mismos puede entrañar riesgos higiénico-sanitarios, medioambientales y de seguridad para la comunidad, que es preciso evitar, ha decidido mediante la presente regular la protección y tenencia de los mismos.

Los propietarios de animales de la especie canina han de tener en cuenta que dependen absolutamente de ellos y que deben responsabilizarse de todas las atenciones que requieren, así como de asegurar que su presencia o sus hábitos no ocasionen molestias para el resto de la comunidad, sobre todo en lo relacionado con la higiene y la seguridad, teniendo en cuenta los derechos de las personas a las que no les agrada la presencia de los mismos.

## TÍTULO PRIMERO

## Disposiciones generales y definiciones

## Artículo 1.

La presente ordenanza tiene por objeto fijar las normas para la protección y tenencia de los animales de la especie canina en el

koarekin eta pertsonen zein ondasunen segurtasunarekin bateragarria izateko eta animalien babesa bermatzeko, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoak, eta gainerako araudi aplikagarriak ezarritakoaren arabera. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei dagokienez, urriaren 29ko 6/1993 Legean, Animaliak Babestekoan, eta abenduaren 23ko 50/1999 Legean xedatutakoa beteko da, bai eta hura garatzen duen gainerako araudi orokorra eta erkidegokoa ere, hots, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua, Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliak Edukitzeko Lege Araubideari buruzkoa, eta azaroaren 30eko 1570/2007 Errege Dekretua, azken hori aldatzen duena.

## 2. artikulua.

Ordenantza hau Arratzua-Ubarrundiako udalerrian dauden txakur guztiei aplikatuko zaie, salbu eta Indar Armatuena, estatuko segurtasun indar eta kidegoen, suhiltzaileen kidegoen eta baimen ofiziala duten segurtasun enpresen txakurrei.

## 3. artikulua.

Alkateari dagokio arlo honen eskumen funtzionala, zehapen araubiderako ezarritakoa gorabehera.

## 4. artikulua.

Ordenantza honen ondorioetarako, ondoko definizio hauek ezartzen dira:

- 1. Txakur abandonatuak: horrelakotzat hartuko dira identifikaziorik ez duten txakurrak, bakarrik dabiltzanak eta, identifikatuta egonik ere, bide publikoan aske eta pertsona arduradunik gabe dabiltzanak, baldin eta jabeak edo pertsona baimenduak ez badu haien galera edo lapurreta salatu horretarako ezarritako epearen barruan.

- 2. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak: horrelakotzat hartuko dira martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotako arraza eta gurutzaketakoak diren txakurrak, alde batera utzita 1570/2007 Errege Dekretuaren arabera gida edo laguntza txakur kreditatuak direnak, estatuko zein erkidegoko legediaren arabera ezagutza ofiziala duten zentroetan hezitakoak eta baldintza hori betetzeko heziketa aldian daudenak.

- 3. Gida txakurrak: ezagutza duten estatuko edo atzerriko zentroetan hezitakoak direla kreditatzen duten txakurrak dira, ezinduei lagundu, gidatu eta sorosten dietenak.

- 4. Jabea: animalia titularra den pertsona fisiko edo juridiko da.
- 5. Edukizalea: animalia daukan pertsona da, jabea izan zein ez.

## BIGARREN TITULUA

### Txakurren edukitzea

#### 1. kapitulua

Txakurren jabeen betebeharrak

## 5. artikulua.- Txakurra edukitzeko baldintzak.

Oro har, etxebizitza partikularretan txakurrak edukitzea baimentzen da. Dena den, baldintza hauek bete beharko dira: bizitokiak baldintza egokiak edukitzea, inguruan arrisku higieniko-sanitariorik ez sortzea eta bizilagunei eragozpenik ez sortzea.

5.1. Bizitokiak ezaugarri higieniko-sanitario egokiak izango dituzte, animalia edo haren inguruko pertsonen osasunerako arriskuak ekidin ahal izateko. Jabeek bizitokiak garbi, desinfektatuta eta parasitorik zein intsekturik gabe edukitu behar dituzte.

5.2. Animalia eguneko zatirik handienean etxebizitzatik kanpo egoten bada, bere behar etologikoetara egokitutako bizitoki bat edukitu

término municipal de Arratzua-Ubarrundia, haciéndola compatible con la salud pública y la seguridad de las personas y bienes, garantizando la protección de los mismos según se establece en el Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad autónoma del País Vasco y demás normativa de aplicación. Para los animales de la especie canina definidos como potencialmente peligrosos, se estará a lo dispuesto en la Ley 6/1993 de 29 de octubre, de Protección de los Animales y en la Ley 50/1999, de 23 de diciembre y demás normativa general o autonómica que la desarrolle, como son, el Real Decreto 287/2002, de 22 marzo, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos, y el Real decreto 1570/2007, de 30 de noviembre, por el que se modifica el anterior.

## Artículo 2.

La presente ordenanza se aplicará a todos los animales de la especie canina que se encuentren el término municipal de Arratzua-Ubarrundia quedando excluidos los animales pertenecientes a las Fuerzas Armadas, Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Cuerpos de Bomberos y empresas de seguridad con autorización oficial.

## Artículo 3.

La competencia funcional de esta materia corresponde al Alcalde, no obstante lo establecido para el régimen de sanciones.

## Artículo 4.

A los efectos de la presente ordenanza se tendrán en cuenta las siguientes definiciones:

- 1. Animal de la especie canina abandonado: se considerará como tal, aquel que no lleve ninguna identificación, ni vaya acompañado de persona alguna, así como aquel que, estando identificado, circula libremente por la vía pública sin ir acompañado de persona responsable, y sin que se haya denunciado su pérdida o sustracción por parte de su propietario o persona autorizada en el plazo establecido.

- 2. Animal de la especie canina potencialmente peligrosos: se considerarán como tales los perros que pertenecen a las razas y sus cruces que figuran en los anexos I y II del Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo, salvo de conformidad con el Real Decreto 1570/2007, que se trate de perros guía o de perros de asistencia acreditados y adiestrados en centros oficialmente reconocidos, conforme a la legislación autonómica o estatal, así como aquellos perros que se encuentren en fase de instrucción para adquirir esa condición.

- 3. Animal de la especie canina guía: es aquel del que se acredita como adiestrado en centros nacionales o extranjeros reconocidos, para el acompañamiento, conducción y auxilio de personas discapacitadas.

- 4. Propietario. Es la persona física o jurídica titular del animal.

- 5. Tenedor. Es la persona propietaria o no, en cuyo poder se encuentre el animal.

## TÍTULO SEGUNDO

### Sobre la tenencia de animales de la especie canina

#### Capítulo 1

Obligaciones de los propietarios de animales de la especie canina

## Artículo 5.- Condiciones para la tenencia.

Con carácter general, se autoriza la tenencia de animales de la especie canina en los domicilios particulares, siempre que las condiciones de su alojamiento lo permitan y quede garantizada la ausencia de riesgos higiénico-sanitarios para su entorno, así como la ausencia de molestias a los vecinos.

5.1. Las características higiénico-sanitarias de los alojamientos deberán ser adecuadas para evitar cualquier riesgo para la salud del propio animal o de las personas de su entorno. Los propietarios deberán mantener los alojamientos limpios, desinfectados, desparasitados y desinsectados.

5.2. Si el animal permanece la mayor parte del día en el exterior de la vivienda, deberá contar con un alojamiento adecuado a sus

beharko du, eguraldi txarretik babestuko duena, euripean edo eguzkipean luze ez egoteko. Ezin da animalia etengabe lotuta eduki, eta ezin zaio jarri mugikortasuna mugatzeko tresnarik. Bizitokiak behar beste aldiz garbituko dira, inguruko bizilagunei usain txarreatatik eragozpenik ez sortzeko.

#### **6. artikulua.- Txakurren jabeen eta edukitzaileen betebeharrak.**

6.1. Etxeko animaliaen edukitzailea eta, subsidiarioki, jabea dira hura babesteaz, zaintzeaz eta begiratzeaz arduratu behar dutenak.

6.2. Baldintza higieniko-sanitario egokietan eduki beharko du animalia, estalpean egoteko instalazioak jarriko dizkio, jaten eta edaten emango dio, behar beste eta modu orekatuan, nutrizioaren eta osasunaren aldetik egoera onean egon dadin. Bestalde, ariketa fisikoa egiteko aukera emango dio eta, txakurraren arraza kontuan hartuta, haren behar fisiologiko eta etologikoak estaliko ditu.

6.3. Behar dituen zainketak emango dizkio, eta udal agintarietako edo beste erakunde eskudun batzuek erabakitzen dituzten gaixotasunen aurkako tratamenduak eta prebentziozko osasun neurriak jarraituko ditu.

6.4. Gaixotasun zoonosiko eta epizootiko larriak dituzten animaliak isolatu egin behar dira eta, ahal izanez gero, tratamendua jarriko zaie. Hori ezinezkoa bada, metodo eutanasiaren bidez hilaraziko dira, ahalik eta sufrimendu txikiena eragiteko moduan.

6.5. Ezin dira animaliak abandonatu, gaizki tratatu, torturatu edo mutilatu, eta ezin zaie mina edo oinazea eragingo dien beste ezer egin. Animaliak ezin dira hiru egun baino gehiago bakarrik utzi etxean, pertsona baimenduren baten kontrolik gabe.

6.6. Lorategietan, orubeetan edo bestelako esparru itxietan txakurrak edukiz gero, behar diren neurriak hartuko dira ingurutik pasatzen diren pertsonen kalterik ez eragiteko.

6.7. Ibilgailua ezin da izan animalien ohiko bizitokia. Bestalde, animaliak garraiatzean ordenantza honen 15. artikuluan xedatutakoa beteko da.

6.8. Herriguneetako bide publikoetatik, espazio libre publikoetatik edo jendea ibiltzen den espazio libre pribatuetatik dabilzen txakurrak pertsona gaituek eramango dituzte, gehienez 2 metro luze den uhal, soka edo katez lotuta, lepoko edo arnes eta guzti. Gainera, jokabide arriskutsua agerikoa denean eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak direnean, nahitaezkoa da muturrekoa eramatea.

6.9. Landa ingurunean abereak laguntzen dituzten txakurrak aske ibili ahaliko dira, jabearen kontrolpean badaude denbora guztian; gainera, etxeko beste abereei, basa animaliei, pertsona eta ondasunei traba eragin diezaieten ekidin beharko da.

6.10. Ehiza txakurrak ehiza burutzen ari direnean baino ezin izango dira aske ibili, eta denbora guztian ehiztarien kontrolpean egon beharko dira. Udalerrri jakin bateko ehiztariak beste udalerrri bateko ehiza esparrura joaten badira, esparruko aprobetxamenduaren titularren ardurak izango da kontrolatzea animalia horiek mikrotxipa dutela, jatorriko udalerrian erregistratuta daudela eta osasun kontrolak gainditu dituztela.

Nolanahi ere, txakurrak daramatzatenean haiek zaindu eta kontrolpean eduki beharko dituzte, eta bermatu egin beharko dute denak jatorriko lekura itzultzen direla.

6.11. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek, 6.8 artikuluan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, ezingo dute erabili arnes edo uhal luzagarriak. Horrez gain, haiek eramateaz arduratzen diren pertsonen aldean eraman beharko dituzte arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimena eta txakur hori arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erroldan izena emanda dagoela ziurtatzen duen txartela. Gainera, txakurrek muturrekoa eraman beharko dute eta ezingo dira inolaz ere lotu gabe ibili. Animalia horietako bat besterik ezin da eraman pertsonako.

necesidades etológicas que le proteja de las inclemencias del tiempo, evitando su exposición prolongada a la lluvia o a la radiación solar. No podrá permanecer permanentemente atado ni utilizar artilugios destinados a limitar o restringir su movilidad. La limpieza de estos alojamientos se realizará con la frecuencia necesaria, para evitar molestias para los vecinos próximos por olores desagradables.

#### **Artículo 6.- Obligaciones de los propietarios y tenedores de animales de la especie canina.**

6.1. El tenedor de un animal de compañía y, subsidiariamente, su propietario, es el responsable de su protección, cuidado y vigilancia.

6.2. Deberá mantenerlo en buenas condiciones higiénico-sanitarias, procurarle instalaciones adecuadas para su cobijo, proporcionarle alimentación y bebida de forma suficiente y equilibrada para mantener buenos niveles de nutrición y salud, darle la oportunidad de ejercicio físico y atenderle de acuerdo a sus necesidades fisiológicas y etológicas en función de su raza.

6.3. Estará obligado a practicarle los cuidados adecuados que precise y proporcionarle los tratamientos de enfermedades y las medidas sanitarias preventivas que, en su caso, disponga la autoridad municipal u otros organismos competentes.

6.4. Los animales afectados de enfermedades zoonóticas y epizooticas graves deberán ser aislados, proporcionándoles un tratamiento adecuado si este fuera posible. En su defecto, deberán ser sacrificados por métodos eutanásicos que impliquen el mínimo sufrimiento.

6.5. No abandonar, ni maltratar, torturar o someter a los animales a prácticas que les puedan producir daños o sufrimientos, ni practicar o causarles mutilaciones. No dejar solos a los animales en el domicilio durante más de tres días sin control por persona autorizada.

6.6. En caso de tener perros sueltos, en jardines, solares u otros recintos cerrados, disponer de las medidas necesarias para evitar que aquellos puedan producir daños a los transeúntes que circulen por las proximidades.

6.7. No pueden tener como alojamiento habitual los vehículos, y su transporte deberá efectuarse conforme se establece en el artículo 15 de esta ordenanza.

6.8. Los animales de la especie canina que circulen en núcleos urbanos por vías públicas, espacios libres públicos o privados de concurrencia pública, irán conducidos por persona capaz e idónea, sujetos con correa, cordón o cadena con collar o arnés con una longitud máxima de 2 metros, siendo obligatorio el bozal siempre y cuando exista un comportamiento peligroso manifiesto y en el caso de animales potencialmente peligrosos.

6.9. Los animales de la especie canina que acompañen al ganado en zona rural, podrán estar sueltos, pero controlados en todo momento por sus propietarios o porteadores, y se evitará que puedan molestar a otros ganados domésticos, animales silvestres, personas o bienes.

6.10. Los animales de la especie canina que se dediquen a la caza, sólo podrán estar sueltos mientras dure la acción de cazar, debiendo en todo momento estar controlados por los cazadores. En el caso de que acudan a un Coto de caza situado en el término municipal de cazadores de otros municipios, los titulares del aprovechamiento del Coto deberán controlar que los citados animales cuenten con el correspondiente microchip y estén registrados en su municipio de procedencia, así como sanitariamente controlados.

El porteador de los mismos deberá cuidar de su custodia y control, asegurándose en todo momento el retorno a su lugar de origen con todos los perros que hubiera acarreado.

6.11. Los animales de la especie canina potencialmente peligrosos, además de las condiciones establecidas en el artículo 6.8, no podrán utilizar arnés ni correas extensibles y las personas que los conduzcan deberán llevar consigo la licencia para tenencia de animales potencialmente peligrosos y la tarjeta de la inscripción del animal en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos. Además, los animales deberán utilizar bozal y no podrán circular en ningún supuesto ni bajo ninguna circunstancia suelta. No puede llevarse más de uno de estos animales por persona.

6.12. Txakurren jabeek ezin badute haietaz kargu egin eta ardura hori hartzeko prest dagoen beste inor aurkitzen ez badute, baimenduta dagoen Animaliak Babesteko Zentro publiko zein pribatu batera eramango dituzte.

### 7. artikulua.- Debekatutako jardunak.

Guztiz debekatuta dago txakurrekin jardun hauek egitea:

7.1. Animaliak leku hauetan sartzea eta bertan egotea: elikagaiak ekoiztu, saldu, gorde, garraiatu eta manipulatzeko diren lokal edo ibilgailuetan, ikuskizun publikoak egiten diren lokaletan, osasun lokaletan, haurrentzako jolastokietan, eta antzeko beste batzuetan, baldin eta bertako arau berezietan debeku hori jasotzen bada. Debeku horiek ez diete eragiten gida txakurrei.

7.2. Animaliek erabilera publikoko kaniletatik edo iturrietatik zuzenean edatea.

7.3. Gorotzak bide eta espazio publikoetan uztea.

7.4. Animaliak beste animalia batzuei edo pertsoneri erasotzera akuilatzea.

7.5. Animaliei tratu txarrak ematea edo erasotzea, eta arrazoitu gabeko oinazea edo mina eragingo dien edozein gauza egitea.

7.6. Animaliak mutilatzea, alde batera utzita beharrezkoak direlako edo eskakizun funtzionalen bat asetzeko albaitekiek egiten dituzten mutilazioak.

7.7. Animaliekiko krudelkeria nahiz tratu txarra, edo haien sufrimendua erakusten duten eszenak filmatzea.

7.8. Oinazea, mina edo heriotza eragingo dieten elikagaiak edo substantziak ematea, eta osasun kontrolak gainditu ez dituzten animalien errai eta barrukiak jaten ematea.

7.9. Txakurrak kalean saltzea.

### 8. artikulua.- Txakurren udal errolda.

8.1. Txakurren edukitzaileak edo erosleak txakurren udal erroldan inskribatu behar du animalia, hura jaiotzen denetik edo erosi edo adoptatzen duenetik hilabete igaro baino lehen, baldin eta EAEn modu iraunkorrean edo hiru hilabete baino gehiago egongo bada. Horretarako, alde aurretik AIEOn (Euskal Autonomia Erkidegoko Animalien Identifikaziorako Erregistro Orokorra) identifikatuta eta erregistratuta egon behar du, halaxe ezartzen baitute 101/2004 Dekretuak eta txakurrak edukitzeari buruzko gainerako araudi aplikagarriak. Animalien dokumentazioaren titularrak pertsona adinduna izango da beti, eta bera izango da animaliak egindako guztia erantzule.

Txakurra identifikatzeko, albaitari gaitu batek mikrotxipa edo gailu mikroelektronikoa jarriko dio lepoaren ezker aldean.

8.2. Animalien jabeak nahitaez jakinarazi behar dizkio AIEOri (udalaren edo albaitariaren bidez) erregistroan jasotako datuetan egon diren aldaketak, bereziki honakoekin zerikusia dutenak:

- Titularraren edo animalien datu aldaketak.

- Titulartasun aldaketak.

- Animalien baja, hil egin delako edo EAetik kanpora eraman dutelako behin betiko.

-Animalien desagertzea, galdu egin delako edo lapurtu egin dutelako.

8.3. Hamar eguneko epea izango da jakinarazpena egiteko, galera edo lapurreta kasuetan izan ezik, horrelakoetan bost eguneko epea izango baita galdu edo lapurtu dutenetik. Txakurra lapurtu egin badute, salaketaren kopia ere aurkeztu behar du.

### 9. artikulua.- Dokumentazioa.

9.1. Animalien jabeak edo edukitzaileak kasu bakoitzean beharrezkoa den dokumentazioa erakutsi behar du die agintari eskudunei, hala eskatzen diotenean.

9.2. Eskatutako unean erakusten ez badu, hamar egun izango ditu agiriak udalera eramateko. Epe hori igarota, animaliak dokumentaziorik ez duela ulertuko da ondorio guztietarako.

6.12. Las personas poseedoras de animales de la especie canina que no puedan mantenerlos y no encuentren un nuevo responsable, deberán entregarlos a un centro de Protección Animal público o privado, debidamente autorizado.

### Artículo 7.- Actuaciones prohibidas.

Quedan totalmente prohibidas las siguientes actuaciones con los animales de la especie canina:

7.1 La entrada y permanencia de los animales en locales o vehículos destinados a la fabricación, venta, almacenamiento, transporte y manipulación de alimentos, a locales en los que se celebren espectáculos públicos y locales sanitarios, a los recintos de juegos infantiles y a cualquier otro similar cuyas normas específicas lo prohíban. Estas prohibiciones no afectan a los perros guías.

7.2 Que los animales beban directamente de los grifos o caños de agua de uso público.

7.3 Depositar los excrementos en las vías y espacio públicos.

7.4. La incitación a los animales a arremeter contra otros animales o personas.

7.5. Maltratar o agredir a los animales, así como someterlos a cualquier práctica que pueda producirles sufrimientos o daños injustificados.

7.6 Practicarles mutilaciones, excepto las practicadas por veterinarios en caso de necesidad o por exigencia funcional.

7.7. La filmación de escenas con los mismos que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento.

7.8. Suministrarles alimentos o sustancias que les causen sufrimientos, daños o la muerte, así como alimentarlos con vísceras y despojos procedentes de otros animales que no hayan superado los oportunos controles sanitarios.

7.9 Ejercer la venta ambulante de los mismos.

### Artículo 8.- Censo municipal de animales de la especie canina.

8.1. El poseedor o comprador de un perro estará obligado a inscribirlo en el censo municipal de animales de la especie canina, dentro del plazo máximo de un mes desde su nacimiento o desde su adquisición o adopción siempre que se hallen de manera permanente o por un periodo superior a tres meses en la CAPV. Para ello deberá estar previamente identificado y registrado en el REGIA (Registro General de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco), según lo establecido en el Decreto 101/2004 y demás normativa aplicable sobre la tenencia, de animales de la especie canina. El titular de la documentación de un animal será siempre persona mayor de edad y responderá de las acciones que impliquen al animal.

La identificación se efectuará mediante la implantación, en la parte lateral izquierda del cuello del animal, de un microchip o elemento microelectrónico que será efectuada por veterinario habilitado para ello.

8.2. El propietario de un animal está obligado a notificar al REGIA (a través del Ayuntamiento o veterinario), cualquier variación en los datos contenidos en el citado registro y en concreto los siguientes:

- Modificación de datos del titular o del animal.

- Cambios de titularidad.

- Baja del animal motivada por el fallecimiento o por traslado definitivo fuera de la CAPV.

-Desaparición por pérdida o robo.

8.3. La comunicación deberá realizarse en el plazo de diez días salvo en caso de pérdida o robo que deberá efectuarse en cinco días desde el extravío o robo aportando una copia de la denuncia en este último caso.

### Artículo 9.- Documentación.

9.1. El propietario o tenedor de un animal ha de poner a disposición de la autoridad competente, en el momento en el que le sea requerida, aquella documentación que resulte obligatoria en cada caso.

9.2. De no presentarla en el momento del requerimiento, dispondrá de un plazo de diez días naturales para aportarla en el Ayuntamiento. Transcurrido dicho plazo se considerará que el animal carece de documentación a todos los efectos.



9.3. Animalia-aren nahitaezko dokumentazioa galdu bada edo lapurturen egin badute, jabeak edo edukitzaileak horren kopia eskatu beharko du hiru egun balioduneko epean, desagertu zen egunetik kontatzen hasita.

#### 10. artikulua.- Erantzukizunak.

10.1. Txakurren titularrak (jabeak zein edukitzaileak) izango dira ordenantza honetako arau hausteren bat osatzen duten gertakari-erantzule; animaliak identifikatuta ez badaude, berriz, normalean haien zaintzeaz, elikatzeaz edota babesteaz arduratzen diren pertsonak –beren izaera edozein dela ere– izango dira erantzuleak.

10.2. Honako hauek udal agintariei laguntza ematera behartuta daude beren animaliei buruzko datu eta aurrekari zehatzak eskuratu ahal izateko: animalien jabeak edo edukitzaileak, eta txakur haztegien, saltokien, txakurrak aldi baterako edukitzeko establezimenduen eta animaliak babesteko eta defendatzeko elkarten jabeak edo arduradunak.

### 2. kapitulua.

#### Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoak, 10. artikuluan zerrendatutakoak. Hori horrela, haien jabeek, txakur guztietarako ezarritako betekizun orokorrez gain, dekretu horren 11. artikuluan xedatutako betekizun bereziak bete beharko dituzte, bai eta martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuak 8. artikuluan ezarritakoak ere. Errege dekretu horren bidez abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliak Edukitzeko Lege Araubideari buruzkoa, garatu zen.

#### 11. artikulua.- Administrazio baimena.

11.1. Arriskutsua izan daitezkeen txakur gisa sailkatutako etxeko animalia bat edukitzeko, administrazio baimena eskuratu beharko da, zeina alkate-lehendakariak emango dien udalerriri horretan bizi diren jabeek. Hura emateko izapideak ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoaren, 13. artikuluan eta hurrengoetan araututa daude.

11.2. Administrazio baimen horrek bost urteko balioa izango du. Epe hori igarotakoan, interesdunak berri-egin beharko du eta eskatzen zaion dokumentazio guztia berri-aurkeztu.

11.3. Emandako administrazio baimena baliogabetuko da hura ematea arrazoitu zuten baldintzak betetzen ez badira, bai eta ordenantza honetan larrizat edo oso larrizat jotako arau hausteak egiten badira ere.

#### 12. artikulua.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal errolda.

12.1. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek 15 egun dituzte, animalia eskuratzen dutenetik kontatzen hasita, txakurra arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erroldan inskribatzeko, betiere dagokion baimena lortu ondoren.

12.1. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta erroldaren arautegia ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoaren, 20. artikuluan eta hurrengoetan ezarrita daude.

### 3. kapitulua

#### Erasoen aurrean jokatzeko prozedura

#### 13. artikulua.- Erasoen aurrean jokatzeko prozedura.

13.1. Animaliak egindako erasoak zer administrazio agintaritzan salatzen edo jakinarazten den, erakunde horrekin bilduko ditu txakur erasotzailea eta haren jabea edo edukitzailea identifikatzen lagundu dezaketen datuak; horretarako, salatzaileari edo gertatutakoa jakinarazten duenari galdetuko dio. Ondoren, espedienteak izapidetze aldera, datu horiek Arratzua-Ubarrundiako Udalarri jakinaraziko dizkio,

9.3. En caso de robo o extravío de la documentación obligatoria de un animal, el propietario o tenedor habrá de proceder a la solicitud del correspondiente duplicado en el plazo de tres días hábiles desde su desaparición.

#### Artículo 10.- Responsabilidades.

10.1. Serán responsables por la comisión de hechos constitutivos de infracción a la presente ordenanza los titulares (propietarios o tenedores) de animales de la especie canina, así como aquellas personas que, a cualquier título, se ocupen habitualmente de su cuidado, alimentación y/o custodia, si dichos animales no estuvieran identificados.

10.2. Los propietarios o tenedores de animales, los propietarios o encargados de criaderos, establecimientos de venta, establecimientos para el mantenimiento temporal de animales de la especie canina y asociaciones de protección y defensa de animales, quedan obligados a colaborar con la autoridad municipal para la obtención de datos y antecedentes precisos sobre los animales relacionados con ellos.

### Capítulo 2

#### De los animales de la especie canina potencialmente peligrosos

Serán considerados animales potencialmente peligrosos los enumerados en el artículo 10 del Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y sus propietarios deberán cumplir además de las obligaciones generales para todo tipo de cánido, las obligaciones particulares establecidas en el artículo 11 del citado Decreto, además de las establecidas en el artículo 8 del Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo, por el que se desarrolla la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

#### Artículo 11.- Licencia administrativa.

11.1. La tenencia de un animal de compañía calificado como potencialmente peligroso requerirá la obtención previa de una licencia administrativa que será otorgada por el alcalde-presidente para aquellos propietarios residentes en el municipio. La tramitación para su concesión viene regulada en los artículos 13 y siguientes del Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

11.2. Esta licencia administrativa tendrá una validez de cinco años, transcurridos los cuales, el interesado habrá de proceder a su renovación aportando nuevamente la toda la documentación requerida.

11.3. Procederá la revocación de la licencia administrativa concedida cuando se incumplan las condiciones que motivaron su concesión y, en cualquier caso, siempre que se cometan infracciones calificadas como graves o muy graves en la presente ordenanza.

#### Artículo 12.- Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos.

12.1. Los propietarios de perros potencialmente peligrosos deberán inscribir los mismos en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos en el plazo de 15 días contados a partir de la adquisición del animal siempre y cuando haya obtenido la correspondiente licencia.

12.1 La documentación a aportar y la regulación del citado Registro viene establecida en los artículos 20 y siguientes del Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### Capítulo 3

#### Procedimiento ante una agresión

#### Artículo 13.- Procedimiento ante una agresión.

13.1 La autoridad administrativa ante quien se denuncie o se ponga en conocimiento la agresión causada por un animal, recabará del denunciante o de quien comunica los hechos, cualquier dato que facilite la identificación del propietario y/o poseedor y del perro causante de la agresión, poniéndolos inmediatamente a disposición del Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia si es éste donde está

baldin eta txakurra han errolatuta badago edo jabea bertan bizi bada.

13.2. Erasoaren ondorioz hozkak eragindako lesioak badaude:

- Udalak espediente ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zainketa Epidemiologikoaren Unitateari eta Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari.

- Lesioak eragin dituen txakurraren jabeak edota edukitzaileak 24 ordu izango ditu txakurra bere aukerako albatari gaituarengana eraman eta hamalau egunean behaketan uzteko. Zer txakur den kontuan hartuta, edo unean uneko inguruabar epizootologikoak hala gomendatzen badute, aldi hori ezberdina izan daiteke, betiere alde zuretik txosten tekniko arrazoitua emanda.

- Hozkaren ondorengo 24 orduetan bere borondatez egin ezean, udalak hala egiteko eskatuko dio eta txakurra haiek biltzeko zentro batean sartzeko edota isolatzeko agindu dezake. Idatzitako txostenaren edo ziurtagiriaren kostua, halakorik balego, animalia jabeak edota edukitzaileak ordainduko du.

- Behaketa aldia amaitu eta gero, jabeak edota edukitzaileak albatariaren ziurtagiria/txostena bidali beharko du udalera 48 orduko epean, bertan jasota gera dadin. Ondoren, udalak horren kopia bidaliko du foru aldundiko Abeltzaintza Zerbitzura eta Osasun Saileko Zainketa Epidemiologikoaren Unitatera.

- Behaketaren emaitzak aztertuta ondorioztatzen bada osasun arrikuak egon daitezkeela, udalak agindu ahalko du txakurra zentroan geratzeko edota isolatzeko, edo horretarako epea luzatzeko.

